



LEHENA GURE OSASUNA, langileak babestu, ez kapitala

APIRILAREN 1ETIK AURRERA ENPRESARI EZ DIOGU BAJA MEDIKUAREN EGIAZTAGIRIA AURKEZTU BEHARKO, EZTA BAJA BERRESTEKO PARTEAK ERE

Hori da urtarrilaren 5ean argitaratu zen arau berriak (abenduarien 27ko 1060/2022 Errege Dekretua) jasotzen dituen bi lerroburu nagusietako bat. Arau berri horrek indarrean dagoen araudian Aldi Baterako ezgaitasunek, lehen 365 egunetan, duten kudeaketa eta kontrolerako zenbait artikulu aldatzen ditu.

Gaur egun, Osakidetza/Osasunbideak edo mutualitateek (mutualitateek ez zuten entregatzen) bi dokumentu ematen dizkigute baja medikuaren aurrean. Baja medikuaren parte da bata, eta bertan agertzen da diagnostiko medikua, hau da, bajaren arrazoi medikuak zein diren; alegia, zer gaixotasun dugun. Eta, bestea, baja medikuaren egiaztagiria bat, gehienez hiru eguneko epean enpresari ematen dioguna, baja medikuan gaudela jakin dezan.

Apihilaren 1etik aurrera, hau da, arau berria indarrean sartzen den egunetik aurrera, Osakidetza/Osasunbideak edo mutualitateek baja medikuaren parte baino ez digute emango, eta bertan agertzen den diagnostiko medikua EZ DIOGU ENPRESARI EMAN BEHARKO. Gizarte Segurantzak bera arduratuko da enpresari modu telematikoan jakinarazteaz baja medikuan (IT) gaudela.

GARRANTZITSUA! Arauak dioenez, baja medikua (edo baja berresteko parteak) ematen digutenetik Gizarte Segurantzak enpresari baja medikuan gaudela jakinarazten dion arte gehienez 2 egun baliodun igaro daitezke. Beraz, LABetik aholkatzen dugu arau honen aplikazioa argitu arte, eta arazorik ez izateko, enpresari jakinaraztea bajan gaudela, ahal dela, hori nonbait jasota uzten duten bitartekoen bidez (Whatsappez, emailez...).

Guiztiok gogoratuko dugu pandemia garaian neurri berberak aplikatu zirela. Baita kudeaketa zein izan zen eta zer arazo sortu ziren ere, Gizarte Segurantzaren eta Osasunbidea/Osakidetza baliabide faltagatik, urteetan jasan ditugun politika pribatizatzaileengatik eta osasun sistema publikoaren desegitearengatik.

LABen ustez, arau berri honen beste lerroburu nagusia da langileen eskubideen aurkako eraso bat dela, kontingentzia arruntengatik baja-aldia murriztea baitu helburu, mutuei botere handiagoa emanez eta Gizarte Segurantzako Institutua (INSS) bajak kontrolatzeko tresna bihurtuz, honako neurri hauen bidez:

> lan osasuna

LAB

- ⚠ Osasun zerbitzuek (Osakidetza/Osasunbidea) ez badiete 5 eguneko epean erantzuten mutuen alta-proposamenei, mutualitateek zuzenean jo ahal izango dute INSSera, 4 eguneko epean ebatz ditzaten.
- ⚠ INSSi ahalmena ematen zaio baje jarraipena egiteko eta epeak errespetarazteko, eta, atzerapen esanguratsuak antzemanaz gero, neurri gehigarriak proposatuko dira, prozedura beharrezko bizkortasun-mailarekin garatzen dela ziurtatzeko.
- ⚠ Gaur egun, baja berresteko mediku-azterketetarako aurreikusitako epeak mantentzen diren arren, arauak ahalmena ematen die osasun zerbitzuei beren irizpidearen arabera kontrol horiek aurreratzeko, eta, horrela, alta medikuak aurreratzeko.

Berrespen-partea berrikuspenak


BAJAREN IRAUPENA			
5 egun baino gutxiago	5-30 egun	31- 60 egun	61 egun baino gehiago
Baja eta alta egun berean. Alta ematen den egunean eska daiteke berrikuspena.	Lehen berrikuspena 7 egunera, eta hurrengoak, asko jota, 14 egunera.	Lehen berrikuspena 7 egunera, eta hurrengoak, asko jota, 28 egunera.	Lehen berrikuspena 14 egunera, eta hurrengoak, asko jota, 35 egunera.
Beti eska dezakegu azterketa mediku bat egin diezagutela alta-datatzat ezarri den egunean			

Hau da, INSSek eta mutualitateek OSASUNBIDEAko eta OSAKIDETZAko medikuak jarriko dituzte lanean, epeak errespetatu daitezten. Madrildik eskumenak lapurtzen jarraitzen digute, mutualitateen mesedetan.

Eta, azkenik, beste elementu garrantzitsu bat INSSeko mediku ebaluatzaileek emandako altei buruzkoa da (normalean baja hartu eta urtebetera, nahiz eta lehenago alta eman dezaketen): alta OSASUNBIDEA/OSAKIDETZari edo mutualitateari (dagokionaren arabera) jakinarazi behar diote, eta horiek enpresari jakinaraziko diote. Era berean, partearen kopia bat eman behar digute, jakinararen gainean egon gaitezen. Horrek adierazten du alta-partea eman eta hurrengo egunean lanean hasi behar dugula.

LABek uste du beharrezkoa dela egungo politikak errotik aldatzea, langileen eta, oro har, gizartearen zerbitzura egongo den kalitatezko osasun publikoaren alde eginez. LABek mutuak desagertzeko eta haien ondarea eta baliabideak Osasun Publikoaren Sistemari sartzeko eskatzen du.

Gaur egun



Apirilaren 1etik aurrera

